

ERREGU-KANTAK

SAN IGNAZIO LOYOLA-KOARI.

1886-AN

Ögure Santu, Euskaldun aundi,
 ñigo Loyola-koa,
 Öure biyotzen maitagarriyen
 Zausi ta goyenekoa!
 Þtoz gugana, sutzeko gugan
 Neruko gauzen gogo;
 ñguzu indar eta laguntza,
 Öso maitatzen JAINKOA.

Zure lan danak igaro ziran,
 Zure nekeak bukatu,
 Emen lurrean ziñuzen kate
 Lokarri danak askatu.
 ¡Zeñ zoriona dezun zeruban!
 Arren gugatik eskatu,
 Izan dezagun arreta aundi bat,
 Ez egiteko pekatu.

Zuk badakizu, mundu onetan,
 Pekatu egiñ ezkeru,
 Jaungoikoaren zuzentasunak
 Egunero ta gabero
 Gu kastigatu gintzakeala:
 Zuk erregutu chit-bero,
 Barkatu deigun, eta libratu
 Gaitzetik orain ta gero.

Zure erregubaz izurri-gaitzak
 Emendik zuben aldegiñ;
 Zure-bitartez gure animen
 Irrisku asko desegiñ:
 Zugana gatoz esker millaka
 Ematera gaur atsegiñ,
 Agindurikan danok, ontzeko
 Eiñgo degula alegiñ.

Begiratu zuk, Aita, gugana,
 Or zeru-goyen erditik;
 Arren, begira mundu ontara
 Zure jar-leku goi-goitik:
 Itz-erdicho bat Jauna-gandurik
 Zauden Santuen tokitik,
 Uste-gerade, San Ignazio,
 Libratubak gaitz guzitik.

JOSÉ IGNAZIO ARANA-KOAK.